



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

212. INFORMAZIO BULETINA

2025eko URRIA



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea

ALBISTEAK

POCTEFA INTERREG Helburuaren proiektuen deialdiaren topaketa birtualak.

Topaketak urriaren 8an eta 29an izango dira.

POCTEFAk topaketa birtual hauek antolatzen ditu INTERREG Helburuaren deialdirako hautagaitzak prestatzen ari diren sustatzaileentzat.

Bilera horietan, POCTEFA programako bazkide instituzionalek parte-hartzaileen kontsultei erantzungo diete, aukeratutako ekintza-multzoaren egokitasuna ardatz hartuta. Deialdiko ekintza-multzoak honako hauek dira:

1. multzoa. Datu-bilketa. Mugaz gaindiko lurraldearen informazioa eta ezagutza hobetzera bideratutako proiektuak.
2. multzoa. Oztopoak identifikatzea eta konpontzea. Mugak egoteagatik dauden oztopo juridiko, administratibo edo bestelakoak identifikatzea eta/edo horiek ezabatzen lagunduko duten neurriak ezartzera bideratutako proiektuak.
3. multzoa. Lankidetzaren egituratzea eta sendotzea. Lurraldeko agintari publikoen eta gainerako stakeholderren erakunde-gaitasuna hobetzera bideratutako proiektuak.

Proiektuen deialdia ekainaren 11tik azaroaren 19ra dago zabalik.

Informazio gehiago:

[Albisteak](#) (gaztelaniaz)

[Deialdia](#)

Eskualdeen eta Hirien Europako Astea (#EURegionsWeek 2025).

2025eko urriaren 13tik 15era ospatuko da Bruselan.

#EURegionsWeek Bruselako kohesio-politikari buruzko ekitaldi nagusia da, Europako Batzordeko Eskualde eta Hiri Politikako Zuzendaritza Nagusiak eta Eskualdeen Europako Komiteak antolatua. 2003an jaio zen, eta EBn esparru horri buruz egiten den topaketarik handiena izan da.

Bere helburua komunikazio- eta lankidetzaren plataforma gisa balio izatea da, ezagutzak trukitzea eta eskualdeko eta hiriko erronkei irtenbideak bilatzea.

Programak tailer parte-hartzaileak, goi mailako eztabaidak eta networking jarduerak, formalak zein informalak, uztartzen ditu.

Parte hartzea doakoa eta irekia da, saioak aurrez aurrekoak badira ere, badaude batzuk **[on-line jarraitu](#)** daitezkeenak.

2025eko URRIA

Oraingo honetan, ekitaldiak hiru gai ditu ardatz:

- Etorkizunerako kohesioa eta hazkundea: kohesio-politikaren garrantzia berrikuntzaren eta hazkunde jasangarriaren eragile gisa
- Geratzeko eskubidea: lurralde bakoitzaren potentziala askatzea: herritarren toki-mailako beharriaz erantzutea, beren komunitateetan aurrera egin dezaten.
- Hiriak etorkizuna eraikitzen: hiriak etorkizuneko erronketara egokitzea.

Gainera, **ekitaldiaren hasierarekin** batera, EBren urteko txostenaren 6. edizioa argitaratuko da.

Informazio gehiago: [#EURegionsWeek](#)

Europako Batzordeak 2026rako lan-programa aurkeztu du.

Programak Europa burujabeagoa eta independenteago bat eraikitzen laguntzeko hainbat ekintza deskribatzen ditu.

Programak, "Europaren independentziaren unea" izenekoak, gure segurtasun eta demokraziarako mehatxuek, gatazka eta tentsio geopolitikoek, gure ekonomia eta industriarako arriskuek eta klima-aldaketaren bizkortzeak eragindako egungo eta etorkizuneko erronkei heltzen die. Orientabide politikoetan eta presidenteak EBko Komisarioen Elkargora bidalitako misio-gutunetan ezarritako konpromisoetan oinarritzen da, baita 2025eko Batasunaren Estatuari buruzko diskurtsoan azaldutako ideietan ere.

Lan-programak Batzordearen egungo funtsezko lehentasunetan egiten ditu ahaleginak, lehiakortasuna indartzeko, berrikuntza garbia eta digitala gidatzeko, gure gizarte-eredu bakarra sendotzeko eta segurtasun kolektiboa bermatzeko.

Informazio gehiago: [Europar Batzordeko web orria](#)

Online saioen zikloa Landa Garapenerako Europako Funtsak.

Landa Garapenerako Espainiako Sareak antolatuak, azaroaren 4,11 eta 18an egingo dira, 10:00etatik 12:00etara.

3 saio egingo dira:

1. Azaroak 4: Erasmus + nola funtzionatzen duen eta landa-ingurunera nola egokitu.
2. Azaroak 11: Lurralde lankidetzarako aukerak Interreg-ekin.
3. Azaroak 18: Ideiatik proiektura: nola prestatu eta aurkeztu proposamenak.

Izena emateko azken eguna: azaroak 3.

Informazio gehiago: [esteka](#) (gaztelaniaz)



2025eko URRIA

Trantsizio Ekologikoko eta Erronka Demografikoko Ministerioak (MITECO) Berreskuratze Planaren gauzatze mapa.

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko proiektuen mapak orain arte lurralde bakoitzean egindako inbertsioen hedapena jasotzen du.

Tresna honen helburua da Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) funtsen gauzatzearen bilakaerari buruzko ahalik eta informazio gehien ematea, argi eta garden. Horretarako, **bi mapa** egin dira:

- Lehenengoan, MITECOk zuzenean finantzaturako proiektuak eta hari lotutako erakundeak erregistratzen dira.
- Bigarrenean, erkidegoei transferitutako funtsak, haiek kudea ditzaten.

Informazio gehiago: **Albistea** (gaztelaniaz)

“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea